

EUROPAKO ERASMUS+ PROGRAMAREN ESPARRUAN IKASLEAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Ikasle bakoitzak lortutako azken puntuazioa ondoren adierazten diren ataletan lortutako puntuazioen baturak osatuko du, gehienez lortu daitekeen puntuazioa 12 izanik.

1. **Espediente akademikoa (%40)**. Heziketa zikloko 1º mailan egindako eta ebaluatutako modulu guztien batez besteko nota. Gehienez 4 puntu lor daitezke. **1º mailako moduluren bat egiteke duten ikasleek ezin dute beka hau jaso.**

Batez besteko nota kalkulatzeko, gainditutako moduluak eta baliozkotzeak honela hartuko dira kontuan:

- a) **Gainditutako moduluak:** modulua kode berdinarekin egin denean beste edozein heziketa ziklo batean. Nota espedientean agertzen dena izango da.
 - b) **Baliozkotze ofiziala:** modulua kode ezberdinarekin egin denean beste edozein heziketa ziklo batean. Nota espedientean agertzen dena izango da.
Salbuespena: "Ingeles teknikoa" irakasgaiaren baliozkotze ofiziala B2 edo goragoko titulu ofizialen bat izateagatik eskatu denean, nota 5 izango da.
 - c) **Barne-baliozkotzea:** modulua kode ezberdinarekin egin denean, baina edukiak antzekoak direnean. Nota lehentsia 5 izango da, irakasleak beste notarik ezartzea ez badu erabaki.
 - d) **Salbuespena:** 45 urtetik gorakoak ingeles teknikoa egiteko salbuespena duten kasuetan, batez besteko nota egindako gainerako irakasgaien gainean kalkulatu da.
2. **Zeharkako gaitasunak (%60)**. Ikaslea matrikulatuta dagoen zikloko irakasleen balorazioa. Gehienez 6 puntu lor daitezke. Ondorengo irizpideak positiboki baloratuko dira:

- a) Erantzukizuna (%20)
- b) Autonomia eta ekimena (%20)
- c) Errespetua (%20)
- d) Asistentzia (%20)
- e) Puntualtasuna (%20)

Ikasleak jokabide desegokiari buruzko txostenen bat badu, modu negatiboan baloratuko da.

3. **Hizkuntza.** Baldintza hauetakoren bat betetzen duen ikasleak puntu 1 lortuko du:
 - a) **Aurreko edo oraingo ikasturtean eskolaz kanpoko ingeleseko edozein ikastarotan matrikulatuta egon izana.** Ikasleak ikastarora joan izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.
 - b) **Ingeleseko B1 edo goragoko edozein titulua izatea.**

4. **Ingelesez egindako irakasgaiak.** Enpresa eta Ekimen Sortzailea (EIE) eta/edo Laneko Prestakuntza eta Orientabidea (FOL) irakasgaiak ingelesez egin dituen edo egiten ari den ikasleak puntu 1 lortuko du.

Hautaketa egin ondoren, emaitzak jakinaraziko zaizkie interesdunei. Hautatuen eta erreserban dauden ikasleen zerrendak Politeknika Txorierriko webgunean argitaratuko dira.

Ikastetxeko Erasmus+ programaren arduradunak kanporatu egin ditzake hautatutako ikasleak, mugikortasunaren aurreko prozesuan konpromisoak betetzen ez baditu: dokumentazioa entregatzea, bileretara ez joatea...

Azken esleipena heziketa-ziklo bakoitzean izena emandako ikasleen kopuruaren eta eskura dauden enpresen arabera izango da.

